



ARESOKO XI. MENDI ITZULIA

Hurrengo igandean (irailaren 2an) Aresoko XI. Mendi Martxa izango da.

Hurrengo igandean (irailaren 2an), Aresoko herriak Mendi Martxaren beste edizio bat egingo du. Hain zuzen, aurten hamaikagarren edizioa ospatzen da, hainbat mendizaleentzat ospe handiko eta ezinbesteko proba izanik.

Aurtengo ibilbidea 21 kilometrokoa izango da, 1.200 metroko desnibel metatua eginez.

Aurreko ediziotan bezala, **Aresoko plazan**, goizean goiz (goizeko 08:00etan), izango da hitzordua. Bertatik, partehartzaileak **Ulizar mendira** joango dira . Toki honetan, lehenengo anoa-gunea izango da.

Ulizar-etik **Urkitia mendira** igo, eta ondoren **Pagozelaira** jeitsiko dira. Hemen indarra hartzeko unea izango dute partehartzaileek, hortik **Guratz mendira** igo beharko dute eta hortik Aresoko Plazara itzuliko dira.

Mendian egindako esfortzuak saria jasoko du bazkari goxo batekin: paella eta sagardoa partehartzaile guztientzat, probako kamiseta teknikoarekin batera.

Inskripzioak eta ordutegia.

Inskripzioa www.mendizmendi.com web orrialdean egin daiteke ostiralerarte (abuztuak, 31), prezioa 12€koa izanik; eta, egunean berean, herriko plazan, izena ere eman daiteke goizeko 07:00-07:45 tartean, prezioa 15 €koa izango delarik).

Mendi itzulia **goizeko 08:00etan hasiko da** eta, 4-5 orduko iraupena izango du gutxi gorabehera. Gogoratu behar dugu hau ez dela lehiarako proba, baita zailtasun ertainekoa dela ere.



Proba honen antolatzaileak Aresoko Udala eta KIROLMANK Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea dira, ondorengo erankudeen laguntzarekin: Plazaola Partzuergo Turistikoa, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Ibilbide Luzeko Zirkuitoa, Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundea, Nafarroako Rural Kutxa eta Kaiku.

Lekunberri, 2018ko Abuztuaren 23a